

**MICAELA PORTILLA IKERGUNE-aren INAUGURAZIOA
INAUGURACIÓN DEL CENTRO DE INVESTIGACIÓN MICAELA PORTILLA**

2017-04-10 Vitoria-Gasteiz 10-04-2017

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, herri ordezkariok, errektore andere txit gorena, errektoreorde jauna, Unibertsitatearen arduradunok, jaun andreok, egun on.

Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerguna berria irekitzen dugu gaur, Micaela Portilla ikerlari arabarraren izena daramana.

Historialaria, dibulgatzailea eta ikerlaria izan zen Micaela Portilla, Euskal Herriko Unibertsitateak Honoris Causa Doktorea izendatu zuen lehen emakumea, errektore andereak esan egin duen bezala. Bidea ireki zuen eta, egun, Unibertsitateak aurrera egiten jarraitzen du, etorkizunari begira bikaintasuna helburu.

Bikaintasuna lortzeko berrikuntzan eta ikerketan inbertitu behar dugu. Hori esan du ere baita errektoreordeak. Hori izan da bihar onartuko ditugun Aurrekontuen lehentasunetako bat. Horrela, berrikuntzan, urtero %5 gehiago inbertituko dugu.

Berrikuntzaren eta Ikerketaren bidez, Bikaintasuna da Hezkuntza sistemaren erronka eta Ikertaldeek helburu honetan aurrera egiteko baliabide gehiago izango dituzte hemen.

Ikerguna honekin gure helburua da: Jakintza, Garapen kulturala eta Garapen ekonomikoa bultzatzea. Azken finean, ikerlariei baliabide hobeagoak eskaintzea. Baita ere, egun dauzkagun 12 ikertaldeak indartzea eta zabaltzea.

Euskadi aspira a ser un “territorio de excelencia” y la Universidad, tanto en la vertiente formativa como investigadora, juega un papel fundamental en esta estrategia.

Mañana aprobaremos los Presupuestos del presente ejercicio para el Gobierno Vasco, y uno de los compromisos que hemos adquirido es incrementar la dotación para innovación, investigación y desarrollo en un 5% cada año.

El Gobierno Vasco comparte el “compromiso con la excelencia”; somos muy conscientes de que debemos facilitar y mejorar las condiciones de los equipos de investigación universitaria.

Este nuevo Centro Micaela Portilla de la Universidad Pública Vasca es un paso adelante en este objetivo. Nace al servicio de la investigación científica en Ciencias Sociales y Humanidades y es pionero en este campo.

Ofrece un nuevo espacio de más de 7 mil metros cuadrados con un diseño de vanguardia al servicio de los equipos investigadores. Cuenta con infraestructuras, equipamiento tecnológico y laboratorios que tratan de favorecer un trabajo de mayor calidad; una mejor contribución al conocimiento y el desarrollo tanto cultural como económico de nuestro País.

Este Centro de Investigación y la labor que en el mismo se va a desarrollar, es el mejor homenaje a Micaela Portilla, apasionada de la historia y el arte, investigadora y divulgadora pionera, primera mujer Doctora Honoris Causa por la Universidad del País Vasco.

Gaur beraz, Micaela Portilla Ikergunearen atea zabaltzen ditugu, Gasteizen, Araban eta Euskadin goi mailako hezkuntza eta ikerketaren aldeko apustua berretsiz.

Zorionak eta eskerrik asko guztioi.